

Asisko gutuna

2014ko Martxoa. 1. printzipioa. Egunero bilatzea Jainkoarekin harreman pertsonala

65. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Gizakiok harreman izakiak gara, eta besteekiko hartu-emanen bizi gara. Ez gara jakitun jaiotzen garen izakiak, baizik eta ikasten joaten garenak bizi osoan zehar. Jakin nahia, jakin-mina, jakin beharra dugu gidari: nor gara?, nolakoak gara?, nori axola gatzaizkio?... Bila gabiltza eta ez nolanhiko bilaketan. Izan ere, ez baitigu nolanhiko ispiluk gure egiazko izaera islatzen.

Gogoetarako gaia

Geure buruari ispiluan begiratu

Ispiluari begiratzen diogunean bi erreakzio izan ohi ditugu: edo ez dugu geure burua hain gaizki ikusten, edo bestela oso gaizki ikusten dugu. Ia inoiz ez dugu geure burua ondo ikusten. Beti aurkitzen ditugu akatsak begiratzen diogun hartan.

Eta horrez gain, geure fisikotik harat begiratzen saiatzen bagara, are gauza gehiago ikusten ditugu, gustatzen ez zaizkigunak.

Halaz ere, besteei begira ematen dugu bizitza, besteengan gustatzen zaigunari edo ez zaigunari arretaz kasu eginez. Haiek kritikatzear gain, haiei imitatzen saiatzen gara geuregan gustatzen ez zaigun hartan, ez dugulako ausardiarik gizartean maskara eta estalkirik gabe aurkezteko, garen bezala, garen ez bezalako itxurarik ematen saiatu gabe.

Gehiegi eragiten digute gaurko gizarteak eskaintzen dizkigun modeloek, gehienetan bete ezinak direnek, horregatik porrotean eta lur jota sentitzen garelarik.

Gustatuko litzaiguke itxura fisiko ona edukitzea, gizartean aintzat hartuak izatea, eta are geure ingurunean ezarritako maila espirituala bizitzea; baina ahaztu egiten dugu gu geu izatea, geure historiarekin eta izate pertsonalarekin leial izatea. Askotan utzi egiten dugu, besteek gugandik espero dutenak eta guran jarri dituzten itxaropenek eraman gaitzaten.

Egunero islatzen nauen ispiluan, sakon sakonean, beste aldean dagoenari erreparatzen badiot, aurki naiteke naizen bezala maite nauen norbaitekin. Niri begira eta nire zain dagoen Jainkoa da, ni neu izaten neuri irakasteko.

Jainkoaren aurpegi horretan ikusi ahalko dut ispiluan neure errealitatea. Hark begi errukitsuz begiratuko dio errealitate horri, eta begi horiek eramango naute ni neurekin berradiskidetzera, ispiluan naizen bezalakoa ikusi nadin arte, neure burua den belakoa maita dezadan.

Ebanjelioko pasartea: Jn 14, 6-11

Jesusek erantzun: “Neu naiz bidea, egia eta bizia. Ezin da inor Aitarengana joan nire bidez izan ezik. Ni benetan ezagutuko baninduzue, Aita ere ezagutuko zenukete. Are gehiago, ezagutzen duzue dagoeneko, eta ikusi ere ikusi duzue”. Orduan, Felipek esan zion: “Jauna, erakutsiezaguzu Aita, eta aski dugu”. Jesusek erantzun: “Honenbeste denbora zuekin, Felipe, eta ez nauzu ezagutzen? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu: «Erakutsiezaguzu Aita?». Ez al duzu sinesten ni Aitarekin bat eginda nagoela eta Aita nirekin? Nik irakatsi dizuedana ez dizuet neure kabuz irakatsi. Niregan bizi den Aita da bere salbamen-egintza burutzen ari dena. Sinetsiezadazue: ni Aitarekin bat eginda nago eta Aita nirekin. Besterik ez bada, sinetsi egiten ditudan egintzengatik”.

Frantziskotar espiritualtasuna

“So egiozu, oi erregina eta Jesu Kristoren emaztea, egunero ispilu horri eta etengabe begiratu bertan zeure aurpegiari, horrela, kanpo eta barne edergailu ugariz jantzirik eta inguraturik, apain zaitezzen ... So egiozu, ispilu honen lehen aldean, askan etzana eta oihaletan bildua dagoenaren pobretasunari ... Ispiluaren erdi aldean kontsidera ezazu apaltasuna ... eta gizadia salbatzeko eraman zituen konta ezin ahala neke eta samin. Eta ispilu beraren azken aldean kontenpla ezazu amodio esanezina; honek eraginik sufritu nahi izan zuen gurutzeko habean ...” (4 KlA G 15-23).

Ispilu askotan begira diezaiokegu geure buruari, baina Asisko santa Klarak, Pragako Ines doneari idaztean, hura gonbidatzen du Jesu Kristoren ispiluan bere buruari so egitera. Hain zuzen ispilu hori fidagarria delako. Ez ditu aurpegiak desitxuratzen: ez Jainko Aitarena, ez pertsonena, ez geurea. Begira Jesu Kristori eta sumatu Harengan zeure aurpegia, zeure egiazko irudia, izatez zarena eta balio duzuna, zeure misterioa eta distira. Zeren eta Hark, Jesu Kristok, ispilatzen zaitu Jainko Aitarenen erraetan zauden bezala betitik eta betirako zizelkatua. So egiozu guregana itzulia dagoen Jainkoaren *amodio esanezina*ren ispilu horri, eta aurki zaitez distiratsu, “kanpo eta barne edergailu ugariz jantziriko eta inguraturiko emazte”.

Otoitza

Begira nagokizu, Jesus Jauna.
Hainbatetan, ene munduan sartuta ibiliz,
ahaztu egiten dut nori eta nola begiratu.
Hori dela eta, beharrezko dut begiak Zugana
itzultzea
eta zure ezpainenatik bizi-hitzak entzutea,
argi egin dezaten nire gauean:
“Ni naiz munduaren argia”.
“Ni naiz atea”.

“Ni naiz bidea, egia eta bizia”.
“Ni naiz egiazko mahatsondoa”.
“Ni naiz biziaren ogia”.
“Ni naiz artzain ona”.
“Ni naiz piztuera eta bizia”.
Eta horrela, zuri begiratu eta entzunez
lasai gelditzen naiz,
eta buruz ikasten zaitut,
gero eta zure antzekoago izateko.

Gutuneko azken hitzak

"Bizitza ispilu bat da. Irri egiten badut, ispiluak irria itzultzen dit. Bizitzaren aurrean hartzen dudana jarrera berbera hartuko du bizitzak nirekiko. Maitatua izan nahi duenak, maita dezala".(Gandhi)

2014ko martxoko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate martxoko erreferentzia guztiak:

1 Mk 10, 13-16	8 Lk 5, 27-32	15 Mt 5, 43-48	22 Lk 15, 1-3.11-24a	28 Mk 12 28-34
2 Mt 6, 24-34	9 Mt 4,1-11	16 Mt 17, 1-9	23 Jn 4,5-11.19-26.39-	29 Lk 18, 9-14
3.Mk 10, 17-27	10 Mt 25,31-46	17 Lk 6, 36-38	42	30 Jn 9,1.6-13-17.34-
4 Mk 10, 28-31	11 Mt 6, 7-15	18 Mt 23-1-12	24 Lk 4, 24-30	38
5 Mt 6,1-6.16-18	12 Lk 11, 29-32	19 Mt 1, 16.18-21.24a	25 Lk 1, 26-38	31 Jn 4, 43-54
6 Lk 9,22-25	13 Mt 7, 7-12	20 Lk 16, 19-31	26 Mt 5,17-19	
7 Mt 9,14-15	14 Mt 5, 20-26	21 Mt 21, 33-43.45-46	27. Lk 11, 14-23	

Martxoko Otoitza hilaren 27an izango da.

Geure web gunea bisitatu



www.asissarea.org

Asis Sarea

646 21 48 96